

Emotikonoak eta ni



Dinamika-mota: Sormena, Hausnarketa (SHAILAK), Aurkezpena

Zer lantzen da: Hausnarketa eta aurkezpena

Adina: DBH

Iraupena: 30 minutu

Partaide kopurua: Talde handia

Materiala:

Emotikonoak, norbere argazkia, guraizeak eta errotulagailuak

Azalpena:

Talde handian edo 3-4 talde txikitan jarrita, emotikono desberdinak banatuko ditugu. Nola sentitzen naiz? Nola nago? ... adierazteko, emotikono bana aukeratuko dute. Aukeratutakoa moztu eta muralean itsatsiko dute. Ondoren, emotikonoaren bidez nolako sentimendua adierazi nahi den adierazteko, errotulagailuaz hitz edo esaldi bat idatziko dute, emotikonoaren ondoan.

Izena ere jar daiteke, hitzak norenak diren jakiteko.

Norbere argazkia ere ipini daiteke emotikonoaren ondoan, nolakoa naizen azaltzeko, hitz edo esaldi batez adierazita.

Aldaera:

Erabil daitezke emotikono bat baino gehiago, une berean sentimendu desberdinak agertzeko.

Izena jartzen ez bada, nork ipini duen asmatzeko ahalegina egin dezakegu.

Oharra:

Bakoitzak zer idatzi duen eta zergatik ahoz ere azaldu dezake, taldearen aurrean.

Taldearen arabera, landu daiteke edo ez zer sentimendu mota agertu diren, positiboak, negatiboak... eta haietaz hitz egin.

Emotikonoak Internetetik har daitezke.